

MITOZKO BI GAU TOM MORELLO, CHRIS ISAAK, BEAT ETA BESTE ARTISTA BATZUEKIN 2026KO BBK LEGENDS BILBAO EKITALDIAN

Dotoretasuna, matxinada eta rockarekiko pasioa batuko dira Bilbao Arenan ekainaren 26an eta 27an. Rage Against the Machine eta Audioslave taldeen sortzailekide den Morellok Estatuan emango duen kontzertu bakarra eskainiko du Bilbon, BBK Legends Bilbaon, 2026ko ekainaren 27an.

*(Bilbo, 2025eko abenduaren 10a).– **BBK Legends Bilbao, BBK Banku Fundazioaren eta Bilboko Udalaren** babesarekin eta Dekker Eventsek antolatuta, **2026ko ekainaren 26an eta 27an** egingo da **Bilbao Arenan**, lehen edizioa ospatu zenetik hamar urte beteko direnean.*

Ostiraleko, ekainaren 26ko, jardunaldian, **Chris Isaak** izango da **BBK Legends Bilbaoren** lehen egunean buru, bere estilo paregabearekin: dotorezia retroa, surf kutsuko soinua eta Amerikako tradizioetik edaten duen sentsibiltatea uztartzen dituen. Kultuzko artista eta rock estatubatuarraren erreferente nagusietako bat **den Isaak berriro itzuliko da Bilbora, 2023an Legendseko bere aurreko bisitan sarrera guztiak agortu ondoren.** Bere abestirik ikonikoena, Wicked Game, belaunaldi oso bati markatua geratu zaio, eta gaur egun ere pop-rock modernoaren kanturik ezagunenetako bat da. Estatu Batuetako abeslari eta aktorea bere betiko bandarekin, **Silvertonekin**, igoko da eszenatokira, **70. urtebetetze-egunean bertan.** Bere ibilbide musikal eta zinematografikoak honako hauek biltzen ditu: kritikak txalotutako estudioko hamahiru album, El silencio de los corderos eta The Wonders bezalako film nabarmenetan arrakasta eta parte-hartze zerrenden buru izan ziren hamabi single. Halaber, film ikonikoen soinu-banden musika konposatu du, besteak beste Eyes Wide Shut, True Romance, Wild at Heart eta Blue Velvet lanetarako. Duela gutxi, **Ibilbide Artistikoaren Saria jaso du Americana Honors sarietan.**

Jardunaldia osatzeko, **Cracker** izango da eszenatokian, AEBetako rock alternatiboko banda enblematikoa. Azken aldian Sala BBK zikloan eskainitako kontzertuan hiru hilabetetik gorako aurrerapenarekin sarrera guztiak agortu ondoren, taldea Bilbora itzuliko da, Low eta Teen Angst bezalako belaunaldiko klasikoek markatutako ibilbidearekin. Rocka, country-rocka, folka eta punka zeharkatzen dituen soinu anitzari esker, kultuzko banda bihurtu da. Halaber, egun berean **Dea Matrona** arituko da, rock eszenaren berritasuna indarrez, freskotasunez eta magnetismoz berritzen ari den Irlandako bikote gaztea. Fleetwood Mac eta Led Zeppelin bezalako legendetan du inspirazioa, eta Glastonbury jaialdian egindako agerraldia bezalako mugarri garrantzitsuek babesten dute bere ibilbidea.

Larunbatean, ekainaren 27an, berriz, **Tom Morello** izango da protagonista. Rage Against the Machine eta Audioslave taldeen sortzailekide izateaz gain, azken hamarkadetako rockaren figura iraultzaile eta aktibista nabarmenetako bat da. Euskadin emango duen lehen kontzertua izango da, eta Bilbon izango duen data bakarra Estatu osoan; hortaz, oso hitzordu berezia izango da jarraitzaileentzat. Rock'n'rollaren indar eraldatzailearen adibide bizia den Morello gitarra-soinu berritzaileengatik eta riff boteretsuengatik da ezaguna; musika garaikidea irauli du, bai bakarkako ibilbidean, bai banda mitikoetako sortzailekide gisa egindako lanarekin. *Rolling Stone* aldizkariak "Denboraldi guztietako 100 gitarjole onenen" zerrendan 18. postuan kokatu zuen,

eta **Rock & Roll Hall of Fame** eta **Heavy Metal Hall of Fame** ospe-aretoetan ere sartu dute. **Prophets of Rage** eta **Street Sweeper Social Club** bezalako supertaldeetako kide izan da, eta sei urtez ibili da biran **Bruce Springsteen & The E Street Band** taldearekin. Gitarra protesta eta emozioaren adierazpen bihurtzeko duen gaitasunagatik da txalotua. Estilo bakarra eta energia ikaragarria uztartuta, Morello Bilbora iritsiko da **kontzertu eskusibo bat** eskaintzera.

Larunbat gau berean **BEAT** ere arituko da, **King Crimson** taldeko legenda izandako bi kidek, **Adrian Belew** eta **Tony Levin** musikariek, osatutako supertaldea; haiekin batera ariko dira **Steve Vai** gitarra birtuosoa eta **Tool** taldeko bateria indartsua, **Danny Carey**. Taldea King Crimsonen 1980ko hamarkadako garaiko hiru disko giltzarriren interpretazio sortzaile eta zehatzari heltzeko jaio da: *Discipline*, *Beat* eta *Three of a Perfect Pair*. **Performing the Music of 80s King Crimson** kontzeptuaren pean, proiektuak garai hartako erreperatorioaren zehaztasun erritmikoa eta egitura-konplexutasuna uztartzen ditu **rockaren historian eragin ukaezina** izan duten lau musikariren nortasun teknikoarekin. Eraitza proposamen bakarra da, eskakizun musikal handikoa, funtsezko ondare bat berreskuratzen duena, bere garaian eraikitzen parte hartu zutenen begiradatik, **orain energia berrituarekin berrinterpretatua**.

Larunbateko eguna osatzeko, **Graveyard** taldearen emanaldia izango da Bilbao Arenan. 2006an sortu zen, Göteborg hirian, eta gaur egun Europako rock eszenako proposamen sendoenetako bat da. 70eko hamarkadako hard rocka, psikodelia eta blues gordina uztartzen dituen soinu bereizgarriari esker, Joakim Nilsson buru duen taldeak ibilbide sendoa eraiki du, *Hisingen Blues* bezalako disko funtsezkoekin eta zuzeneko intentsu, girotsu eta hipnotikoekin.

Musika-egutegiko ezinbesteko hitzordu gisa finkatu ondoren, **BBK Legends Bilbao** ekitaldia Bilbao Arenara itzuliko da, rockaren eta bluesaren mito handien, haiekin hazi ziren belaunaldien eta haien ondarea aurkitu duten belaunaldi berrien arteko topagune bihurtzeko.

Ekitaldiak **izaera irekia eta zeharkakoa berresten du**, muzikazale gazteetatik hasi eta familia osoetaraino (sarrera doan 14 urtera arte).

IRAUNKORTASUNAREKIKO KONPROMISOA

BBK Legends Bilbaok aktiboki jarraitzen du bere ingurumen-inpaktua murrizteko lanean, **Erronka Garbia – Ekitaldi Jasangarria** metodologian oinarritutako neurriak ezarriz. Karbono-aztarna gutxitzetik eta material birziklagarrien erabileratik garraio publikoa sustatzera arte, egitasmo bakoitzak hirian eta ingurunean eragin positibo eta ukigarria sortzea du helburu.

SARREREN SALMENTA ETA EMANALDIEN ORDUTEGIAK

Eguneko sarrerak eta bi eguneko bonuak gaurtik aurrera daude salgai, eta www.musiclegendsfestival.com webgune ofizialaren bidez erosi ahal izango dira. Azken lau edizioetako gutxienez batean **BBK Legends Bilbaon** izan direnek posta elektronikoz jasoko dute kode bat; horri esker, **prezio berezian** erosi ahal izango dituzte sarrerak, denbora-tarte mugatu batean (abenduaren 25era arte).

Aurten, **graderietako eserlekuak zenbakituta egongo dira**, eta, horri esker, ikusle bakoitzak alde zuzenetik aukeratu ahal izango du bere tokia. Emanaldien ordutegiak aurrerago kontsultatu ahal izango dira BBK Legends Bilbaoren webgune ofizialean.

DOS NOCHES DE LEYENDA CON TOM MORELLO, CHRIS ISAAK, BEAT Y MÁS ARTISTAS EN EL BBK LEGENDS BILBAO 2026

Elegancia, rebeldía y pasión por el rock se citan en el Bilbao Arena los días 26 y 27 de junio. Morello, el cofundador de Rage Against the Machine y Audioslave ofrecerá en Bilbao su única actuación en el Estado en el BBK Legends Bilbao el 27 de junio de 2026.

(Bilbao, 10 de diciembre de 2025).— El **BBK Legends Bilbao**, patrocinado por la **Fundación Bancaria BBK**, y el **Ayuntamiento de Bilbao** y organizado por **Dekker Events**, se celebrará los días **26 y 27 de junio de 2026** en el **Bilbao Arena**, celebrando diez años desde su primera edición.

El **viernes 26 de junio**, **Chris Isaak** encabezarán la primera jornada del **BBK Legends Bilbao** con su inconfundible estilo, mezcla de elegancia retro, sonido surfero y sensibilidad americana. Artista de culto y referente absoluto del rock americano, **Isaak regresa a Bilbao tras agotar todas las localidades en su visita anterior al Legends en 2023**. Su tema más icónico, *Wicked Game*, marcó a toda una generación y sigue siendo una de las canciones más reconocibles del pop-rock moderno. El cantante y actor estadounidense **actuará en Bilbao el día de su 70º cumpleaños** acompañado de su inseparable banda **Silverstone**. Su trayectoria musical y cinematográfica abarca trece álbumes de estudio aclamados por la crítica, doce sencillos que encabezaron las listas de éxitos y participaciones en películas tan destacadas como *El silencio de los corderos* y *The Wonders*. Ha compuesto música para bandas sonoras de filmes icónicos como *Eyes Wide Shut*, *Amor a Quemarropa*, *Corazón Salvaje* o *Terciopelo Azul*. Además, recientemente ha sido **galardonado con el Premio a la Trayectoria por Interpretación en los American Honors**.

La jornada se completará con las actuaciones de **Cracker**, la emblemática banda estadounidense de rock alternativo que, tras agotar las entradas con más de tres meses de antelación en su reciente concierto dentro del ciclo de la Sala BBK, regresa a Bilbao con una trayectoria marcada por clásicos generacionales como *Low* o *Teen Angst*, consolidándose como una formación de culto por su versatilidad y un sonido que abarca del rock al country-rock, el folk y el punk; y de **Dea Matrona**, el joven dúo irlandés que está renovando la nueva escena del rock con una combinación de fuerza, frescura y magnetismo, influenciada por leyendas como Fleetwood Mac y Led Zeppelin y respaldada por hitos como su paso por el festival Glastonbury.

El **sábado 27 de junio** será el turno de **Tom Morello**, cofundador de **Rage Against the Machine** y **Audioslave**, figura revolucionaria, activista y una de las personalidades más influyentes del rock de las últimas décadas. Será su **primera visita a Euskadi con fecha exclusiva en Bilbao en todo el Estado**, una cita verdaderamente especial para sus seguidores. **Morello** es la prueba viviente del poder transformador del rock'n'roll, conocido por sus innovadores solos de guitarra y sus potentes riffs, ha revolucionado la música contemporánea tanto en su carrera en solitario como en su papel como miembro fundador de míticas bandas. La revista *Rolling Stone* lo situó en el puesto **18 de los "100 mejores guitarristas de todos los tiempos"** y ha sido incluido en el **Rock & Roll Hall of Fame** y el **Heavy Metal Hall of Fame**. Ha formado parte también de supergrupos como **Prophets of Rage** y **Street Sweeper Social Club**, además de colaborar con **Bruce Springsteen & The E Street Band** durante seis años. Aclamado por su capacidad para transformar la guitarra en una extensión de la protesta y la emoción, con un estilo único y una energía arrolladora, el músico estadounidense llegará a Bilbao para ofrecer un **concierto exclusivo**.

Esa misma noche actuará **BEAT**, el supergrupo formado por los legendarios exmiembros de **King Crimson**, **Adrian Belew** y **Tony Levin**, junto al virtuoso guitarrista **Steve Vai** y el explosivo batería de **Tool**, **Danny Carey**. La banda nace con el propósito de ofrecer una reinterpretación creativa y altamente rigurosa de los tres álbumes que definieron la etapa más innovadora de King Crimson en los años 80: *Discipline*, *Beat* y *Three of a Perfect Pair*. Concebido bajo el concepto **Performing the Music of 80s King Crimson**, el proyecto combina la precisión rítmica y la complejidad estructural de aquel repertorio con la personalidad técnica de cuatro músicos cuyo **impacto en la historia del rock es indiscutible**. El resultado es una propuesta singular, de enorme exigencia musical, que recupera un legado fundamental desde la mirada de quienes participaron en su construcción y lo reinterpretan **ahora con una energía totalmente renovada**.

La jornada del sábado se completará con la actuación de **Graveyard**, la banda sueca formada en Gotemburgo en 2006 y considerada una de las propuestas más sólidas del rock europeo actual. Con su mezcla inconfundible de hard rock setentero, psicodelia y blues crudo, el grupo liderado por Joakim Nilsson ha construido una trayectoria marcada por álbumes esenciales como *Hisingen Blues* y por directos intensos y cargados de atmósferas hipnóticas.

Tras consolidarse como una **cita imprescindible del calendario musical**, el **BBK Legends Bilbao** regresa para convertir de nuevo el **Bilbao Arena** en el **punto de encuentro anual entre las grandes leyendas del rock y del blues, las generaciones que crecieron con ellas y las nuevas que descubren su legado**.

Con un público que abarca desde jóvenes melómanos hasta familias completas (entrada gratuita hasta los 14 años), el evento reafirma su **carácter abierto y transversal**.

COMPROMISO CON LA SOSTENIBILIDAD

El BBK Legends Bilbao continúa trabajando activamente para reducir su impacto en el medio ambiente, **aplicando medidas basadas en la metodología Erronka Garbia – Evento Sostenible**. Desde la reducción de la huella de carbono y el uso de materiales reciclables hasta la promoción del transporte público, cada iniciativa busca generar un efecto positivo tangible en la ciudad y en el entorno.

VENTA DE ENTRADAS Y HORARIOS DE LAS ACTUACIONES

Las entradas de cada día y los bonos de dos días ya están a la venta desde hoy y se podrán adquirir a través de la web oficial www.musiclegendsfestival.com. Las personas que hayan asistido al menos a una de las últimas cuatro ediciones del BBK Legends Bilbao recibirán un código por correo electrónico que les permitirá adquirir sus entradas a un **precio especial durante un tiempo limitado (hasta el 25 de diciembre)**. Este año, las **entradas de grada estarán numeradas** para que cada asistente pueda elegir su asiento con antelación. Los horarios de las actuaciones se podrán consultar en la página web oficial del BBK Legends Bilbao más adelante.